

## **GAU BELTZA**

Mikela Atxoarena, 13 urte  
*Arrosa, Lapurdi*

Izugarria da,  
Zeru argiak galtza beltza janzen du,  
Hodeiak honen gibelean dira gordetu.  
Milaka izar dira azaldu  
Ilargiaren xirrixtan nahiz jostatu.

Sinestezina da,  
Haizea baretua da jada,  
Eta, xoria murmurika, hasi da:  
“Xxxxit! Zu, xori xoxo, ixil! Sarri duxu kantatuko!”

Beldurgarria da,  
Etxeen begitartea iluntzen,  
Gure lurra ikatz beltz bilakatzen.

Eztigarria da,  
Ezti-eztia gelditzen da kanpoko mugimendua,  
Isiltasunarekin batera airea da arindua.  
Konturatu gabe ari naiz moteltzen,  
Hegal pareta janzen,  
Beste mundura airatzen.

Gertaezinak diren amets eder eta argiak badira,  
Baina munstroz beteriko amesgaiztoek lehertuak dira.

Bat-batean, nire babesteko,

Eguzki alai eta argiak

Nire ohe bero erosoan pausatzen nau:

“Goiza da! ...”